

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroetara iristeko kanal zuzena erabiliko dugu batez ere. Kanal hau gure jatetxea izanik, eta gure jatetxetik aterata gure langile propioak euro bat edo bi gehiagoren truke bezeroen etxera joango liriateke janaria eramatera, horrela bezero gehiago lortzeko. Honez gain zeharkako kanal bat erabili dezakegu Globo edo moduko enpresa batekin akordio bat eginez, baina hori hasiera batean bakarrik izango litzateke, gure jatetxeak fama gehiago izateko eta bezero berriak erakartzeko. Hala ere, negozioa finkatzean, nahiago dugu guk geuk eramatea janaria etxetara, errentagarriagoa eta seguruagoa iruditzen zaigulako, ez dugulako beste enpresa batean fidatu behar haien lana ondo egin eta guri fama txarrik ez emateko.

Gure kanalak handiagotzeko webgune bat jarri dezakegu telefonoz deitu nahi ez dutenentzat, eta bezero gehiago erakartzeko janariaren argazkiak jarritz eta gure produktuak errazago saltzeko. Beste aldetik, negozioa ondo joanez gero frankiziak jarriko genituzke, jatetxe gehiago izanez salmentak eta mozkinak areagotzeko.

